

# AKTA



**Bilera eguna:** 2011-10-11

**Bilera tokia:** Kultur etxea

**Bertaratuak:** Leire Zinkunegi, Santos Carretero, Elixabet Zuriarrain, Imanol Manterola, Egoitz Eizagirre, Joseba Oliden, Garbiñe Manterola, Marijo Martinez, Joana Domingo, Ekiñe Saizar, Eneritz Odriozola eta Beñat Solaberrieta

**Hasiera ordua:** 19:00

**Bukaera ordua:** 20:25

---

## Gai ordena

1. Kokapena: zer da topagunea berdea
  2. Orioren ingurumen beharrak / lehentasunak
  3. Bileren izaera eta maiztasunak
- 

## Bileraren garapena

### 1. Kokapena: zer da topagune berdea

Beñat Solaberrietak, aurkezpen txiki bat egin du topagune berdearen inguruan. Zer eta zertarako den azaldu du. Topagune berdea, udalak sortu baina herritarrek bultzatu beharreko proiektu bat da. Proiektu honetan ingurumen gaietan sentsibilitate berezia duen edonork parte har dezake, eta ingurumen elkarteak bereziki gonbidatuta daude.

Taldeak berak definituko du zein izango den bere funtzionamendua eta zeintzuk izango diren bertan landuko diren gaiak. Printzipioz, Orioko topagune berdea hilean behin elkartuko da. Hilabeteko lehen asteazkenetan arratsaldeko 19:00tan.

### 2. Orioren ingurumen beharrak / lehentasunak

Gai desberdinak atera dira mahai gainera, baina eztabaidaren erdian aipatu den sailkapen baten arabera definitzea proposatu da gai desberdinak. Eta bakoitzean oso desberdinak atera diren gaiak agertu dira.

*Ingurunea (Orokorrean "Orio eta ingurumena" hausnarketa)*

- Orioko udalaren izenean biodibertsitatearen izenean aurkeztu nahi den aldarrikapen testua adostu
- Orioko bidegorri sarea
- Motondo proiektua
- Hondartzaren egoera

- Herriko merkatariegan murrizketaren inguruko hausnarketa bultzatu
- Hondakinen kudeaketaren hausnarketa
- Mugikortasuna (oinezkoak, bizikletak eta autoak)
- Energia gastuen azterketa.
- Eskolarteko agenda 21
- Orioko hirigintza planeamenduaren nondik norakoak
- ...

*Gure ohiturak (Ekintza zehatzen bidez ingurumena errespetatzea)*

- Edalontzi berrerabilgarrien arautegia aztertu
- Zuhaitz hazien banaketa
- Jostailuen berrerabiltzea (banaketa)
- Bokadiloak biltzeko trapua
- Esne makinak
- Harategi eta arraindegietan tuperrak
- ...

Gai hauez gain mahaiaren gainean hainbat eta hainbat hausnarketa planteatu ziren. Horretarako, lana antolatzea eta lehentasunak jartzea da helburu nagusia. Printzipioz datorren bilerarako hainbat etxekolan planteatu ziren.

<b>Zer</b>	<b>Nork</b>
Murrizketaren inguruko planteamendu zehatza	Orioko Zero Zabor taldeak
Edalontzien dokumentua aztertu	Denek
Biodibertsitatearen dokumentua bidali	TB
Orioko dituen ingurumen azterketak bildu	Beñat
Herri lurren inbentarioa lortu	Beñat
Planeamenduaren laburpena	Beñat
Motondoren aurkezpena	Herrio

### **3. Bileren izaera eta maiztasuna**

Bilerak hileko lehen asteazkenean egitea proposatu da. Hurrengo bilera beraz, azaroaren 2an arratsaldeko 19:00tan izango da. Berriz ere deialdia egin eta ahoz aho zabaltzeko konpromisoa hartu dugu. Taldea handitzeko helburuarekin.

Akta hartzearen eta denei berbidaltzearen lana rotatiboa izateko proposamena egin da. Hurrengo bilerako idazkaria Leire Zinkunegi izango da.